

BEZEROAREKIKO HARREMANA

BEZERO BERRIAK: Gu, bezero berriak lortuko ditugu jendea kalean ikusiko dituztelako, jende berria jaietara doalako eta herri bakoitzeko udalak informazio panfletoak bidaliko dituztelako etxez-etxe.

Kaleetan kontainerrak ikusi eta gero eta jakinda gosariak dohainik eduki ahal dutela, jendea animatuko da haien botilak kontainer hauetara sartzen, horrela gure bezeroak kontainer hauei buruz hitz egingo dute eta honek ezagunagoa egingo da.

Kontainerra berez nahiko ezaguna egingo da denbora gutxian, jende gazteak bereziki jaietan asko erabiliko duelako.

Horrekin batera, ahoz aho joango da esaten kontainer honen existentzia eta jendea jaietan kontainerra bilatzen egongo da. Gazteak kontainerra bilatzen ez galtzeko, Instagram kontu bat sortuko dugu eta han jai bat baino lehenago kontainerren kokalekua jarriko dugu. Horrekin jendea ez galtzearekin batera kontainerra egongo dela jende gehiagori helduko zaio gaur egungo gazteek sare sozialetan ematen dutelako haien denboraren gehiena.



Mota honetako argazkiak izango dira eta kontainerra puntu gorri batekin markatuko dugu. Puntuan klik egiterakoan Google Maps-era eramango ditu eta horrela askoz errazago helduko dira.